

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

350/2026 Foru Agindua, uztailaren 16koa. Audioko Udaleko A1 azpitaldeko karrerako funtzionarioa den Oinaze de Losantos Gonzálezen halabeharrezko izendapena, Audioko Udalean estatutako gaikuntza duten funtzionarioei gordetako lanpostuei dagozkien eginkizunak betetzeko 2026an, aldi baterako ezintasunagatik edo titularren absentziagatik, oporregatik, norberaren gauzetarako edo beste arrazoi batzuegatik, betiere hilabetetik beherako aldietarako bada

Laudioko Udalak 2026ko uztailaren 13an jakinarazi du halabeharrezko izendapen baten premia duela idazkari/kontuhartzaile/diruzain lanpostuari dagozkien eginkizunak betetzeko, lanpostuaren titularra 2026an aldi batez ez dagoenean ordezeko, betiere hilabetetik beherako aldietarako.

Horregatik, Oinaze de Losantos González A1 azpitaldeko udaleko karrerako funtzionarioaren halabeharrezko izendapena egitea proposatzen du.

Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ahalbidetzen du halabeharrezko izendapenak egitea, estatutako gaikuntza duten funtzionarioei gordetako lanpostuetan beharrezkoak diren ordezkapenak egiteko, Estatutako gaikuntza duten toki administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52. artikuluan jasotzen diren kasuetan.

Lehen aipatutako 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan adierazten da ezen lanpostuaren titularra aldi baterako ezintasunean edo oporregatik, norberaren gauzegatik edo beste arrazoi batzuegatik kanpoan dagoen kasuetan, toki erakundeko bertako funtzionario bat aldi baterako izendatu ahal izango dela hilabete baino gutxiagoko aldietarako, korporazioeko lehen-dakariak proposaturik, autonomia erkidegoko araudiaren arabera.

Kontuan hartu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92 bis artikuluan xedatutakoa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak (25. artikulua) idatzita utzi zuen moduan, non toki korporazioetan aldi baterako langileak izendatzeko eskumen eremua zehazten baita.

128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan (ALHAO, 36 zk., 2023ko martxoaren 27koa) jasotzen diren eskudantziak betez, eta nire eskumenekoak diren ahalmenez baliatuz eta horrenbestez

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Audioko Udaleko A1 azpitaldeko karrerako funtzionarioa den Oinaze de Losantos Gonzálezen halabeharrezko izendapena egitea, Audioko Udalean idazkari, kontuhartzaile edo diruzain lanpostuei dagozkien eginkizunak betetzeko 2026an, aldi baterako ezintasunagatik edo titularren absentziagatik, oporregatik, norberaren gauzetarako edo beste arrazoi batzuegatik, betiere hilabetetik beherako aldietarako bada.

Bigarrena. Izendapena aurreko apartatuan aipatutako eperako bakarrik izango da. Ezin izango dira aldi berean bete halabeharrezko izendapen honen xede diren hainbat lanposturi dagozkien eginkizunak.

Hirugarrena. Orain halabeharrez izendatzen den funtzionarioak gaikuntzako funtzionarioei gordetako eginkizunak abenduaren 18ko 650/2025 Foru Aginduaren bidez egindako 2026rako egindako izendapenekin koordinatuta bete beharko ditu.

Laugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Bosgarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Audioko Udalarari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari.

Seigarrena. Jakinarazten zaizun erabaki hori behin betikoa da administrazio bidean eta haren aurka, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango duzu zuzenean Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorritik Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin. Nolanahi ere, aurrez errekerimendua egin ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 16a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA